



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2019ko URTARRILA - 200 zenbakia

Urte berri on!

Bakarkako hiru bertsolari txapelketa ez ezik, taldekako bat ere izango da aurten. Gaztetxoenek kantuan egiteko eta ongi pasatzeko aukera izango dute, Eskolartekoari eta Bertso Udalekuei esker. Eta horri guztiari oinarri egokia jartzeko baliatuko ditugun ikerketak bultzatzen jarraituko dugu Mintzolatik.

Horman jarri berri dugun egutegiari ia kendu diogu lehen orria. Urtarrilaren amaierarako, ordea, urteroko hitzordu seinalatua dugu: Bertso Eguna ospatuko dugu urtarrilaren 26an Barañainen. Goizetik hasi eta gauera arte egitarau potoloa dugu prest: xehetasun guztiak hurrengo orrian topatuko dituzue. Urtearen hasierarekin batera hasiko da Bizkaiko Taldekako Txapelketa ere, duela bi urte izandako esperientzia errepikatuz. Udaberri bete-betean amaituko da.

Bertsolari txapelketak ere izango dira aurten. Bizkaiko Taldekakoaz harago, Arabako eta Nafarroako bertsolari txapelketak jokatu dira urtearen lehen hilabeteetan. Gipuzkoakoak 2019ko egutegiaren azken orriak beteko ditu, baina aurretik ere, udaberrian, sailkapen faseko saioak izango dira.

Eskolartekoa ere berehala iritsiko da. Otsailean bertan ekingo zaie Gipuzkoan

saioei eta udaberrian lurralde guztietan piztuko da. Denek ere bat egingo dute Euskal Herriko Eskolarteko saioan, ekainean. Gazteek beren arteko harremanari eutsiko diote gero, udan, Bertso Udalekuei esker. Laster emango zaizue txanden berri.

Mintzola Ahozko Lantegitik bertsolaritzaren ikerketa sustatzen jarraituko dugu; Bertsozaletasunaren Azterketa Soziologikoaren datuak ezagutarazten segitu ez ezik, bertsolaritzaren inguruko ikerketen berri emateko plazak baliatuko ditugu, UPV/EHUko Uda Ikastaroena edota udazkenean egin ohi dugun Mintzola Mintegiarena. Eta munduko gainerako kantu inprobisatuekin eta euskarazko ahozko diziplinekin eskutik egingo dugun bidea ere aberatsa izango da, ziur: besteak beste, jada errotuta dagoen Ahots Baten sormen egonaldiarekin amaituko dugu urtea.

Lurraldeetan egingo diren egonaldietan, Hitzetik Hortzeran edota Nafarroako Bertsoaroan eta antzerako plazetan ere topatuko duzu bertsolaritza.

Bertsozale Elkarteko batzarrak

Goiztiarrenak nafarrak izango dira: urtarrilaren 26an egingo dute batzarra Barañainen. Otsailean izango dira Arabako, Gipuzkoako eta Bertsularien Lagunak elkarteak; 2an, 14an eta 16an, hurrenez hurren. Bizkaiko Elkarteak martxoaren 16an egingo du eta Batzar Nagusia apirilaren 6an izango da.



IGOR
ELORTZA ARANOA
Amurrio, 2019-01-04

Doinua: Haizea dator ifarraldetik

Urte berri bat, saio berri bat zer daukagu kontatzeko? Trump, Bolssonaro eta Abascal dauzkagula botatzeko artean preso gugandik urrun hainbat lagun ta etxeko gizonak andrak hiltzen oraindik petrolio amaitzeko asmo berriak piztu direla gure arteko bakoitzeko eta gu hemen gaudela oraindik hori dena kantatzeko.



Bertso Egunetik hasita, hainbat plaza izango ditu bertsolaritzak 2019an ere. / XDZ

F.C.BAIMENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Eredakzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xempelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazioa@bertsozale.eus

Dena prest Barañainen Bertso Egunerako

Bazkarirako eta arratsaldeko ekitaldirako sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus atarian.

Urtarrilaren 26a gainean da eta azken xehetasunak lotzen harrapatu dugu Bertso Eguna antolatzen ari den taldea: "Bertso Eguna ibiltaria eta formatuz aldakorra izango zela erabaki genuen, eta hau bigarren edizioa izango da. Aurten gainera Bertso Eskolen Eguna eta Bertso Eguna bateratu ditugu", azaldu du Jone Uriak, Bertsozale Elkarteko Sustapen arduradunak.

Elkarlan handiaren emaitza da Bertso Eguna. Bertsozale Elkarteko lantaldea ez ezik, gidolari taldea, bertso eskolen batzordea, eta Barañaingo bertso eskola buru belarri baitabilta: "Ilusioa egiten digu Bertso Eguna gure herrian ospatzeak. Barañainen euskararentzat arnagune ederra da bertsoaritzat", dio Mintxo Astiz Barañaingo bertso eskolako kideak.

Goizetik izango da zertaz gozatua. 11:00etan *Enkarguz* emanaldiaz gozatzeko aukera izango dugu, udaletxeko erabilera anitzeko gelan. Lanku Kultur Zerbitzuek bideratutako Andoni Egañaren, Xabi Zabalaren eta Alberto de Abajoren emanaldi berria da *Enkarguz*, eta sarrera doakoa izango da. Eguerdian, poteoan ariko gara tabernaz taberna eta Euskal Herri osoko hamabi bertsolari ariko dira bidean kantari: Aitor Servier, Alaia Martin, Andoni Egaña, Arrate Illaro, Eli Pagola, Gorka Pagonabarraga, Mikel Lasarte, Miren Artetxe, Saioa Alkaiza, Sarai Robles, Unai Iturriaga eta Xabi Igoa.

Jarraian etorriko dira bazkaria eta arratsaldeko emanaldia. Bazkaria Barañaingo udaletxearen aurrean atonduko den

karpan izango da, 15:00etan. Egurrezko lurra eta berogailuak izango dira Iparra-Hegoa ekimenak prestatutako menu goxoa dastatzeko, eta sorpresarik ere ez da faltako. Emanaldia, ostera, auditorioan izango da 19:00etan. Kantuan izango dira Beñat Gaztelumendi, Julio Soto, Maddalen Arzallus, Maialen Lujanbio eta Xabat Gallatebeitia bertsolariak. Aurrez aipatu bezala, bertso eskola izango du gai Bertso Eguneko emanaldiak. Saioaren gidoia prestatzen aritu dira Nerea Ibarzabal bertsolaria eta Edurne Azkarate aurkezlea. "Bertso eskolako kide guztiak identifikatuta sentitzeko moduko saio bat ari gara prestatzen", azaldu du Nerea Ibarzabalek. *Aulki Jokoan* ezagutu genuen aurkezleak berak gidatuko du saioa: "oholtzan gaudenen eta publikoaren arteko mugak hausteko aukera egokia izan daiteke", aitortu du Edurne Azkaratek.

Bazkarirako eta ekitaldirako sarrerak eskuragai daude www.bertsosarrerak.eus atarian. Plana, prest.

Gauean, Hezurbeltzak, Oinutsik eta Kasu

Eguerdian bazkaria hartuko duen karpa berriro atonduko da gauerako: 21:30ean hasita, kontzertuak izango dira. Hezurbeltzak, Oinutsik eta Kasu taldeak ariko dira. Kontzertuetarako sarrera doakoa izango da.

Bestalde, gogoan izan Nafarroako Bertsozale Elkartek urteroko batzarra egiteko baliatuko duela eguna. Urtarrilaren 26an Barañaingo kultur etxean egingo du, 9:30ean.



Bertso Eguna elkarlan handiaren emaitza da. / XDZ

“Munduari begiratzeko modu bat eraiki du bertsolaritzak, aukera leihoak baliatu eta jendea mugiarazi”

Bertsozaletasunaren Azterketa Soziologikoa gauzatu da hirugarren aldiz eta ikerketa horretatik ateratako zenbait ondorio aletu ditu Harkaitz Zubiri ikertzaileak.

“Bertsolaritzaren ikerketa egitea eskatu zigutenean, oso fenomeno arraroa ikertzea eskatu ziguten. 14.000 lagun elkarten dira BECen *a capella* 8 lagun entzutera eta kultur sorkuntza mota honetan hori ez da oso ohikoa. Ikertzaile bezala oso interesgarria da hori nola den posible aztertzea”, azaldu zuen Harkaitz Zubiri ikertzaileak Durangoko Azokaren baitan egin zen Bertsozaletasunaren Azterketa Soziologikoaz eta bertsolaritzaren geroaz solasean hitzorduan.

Bertsozale Elkarteak Mintzola Ahozko Lantegiaren bidez gauzatu du ikerketa eta lan horretan aritu dira Xabier Aierdi, Alfredo Retortillo eta Harkaitz Zubiri bera, galdetegiak egin dituen boluntario talde handiarekin batera. Honelako ikerketa egiten den hirugarren aldia da.

“Bertsolari kopurua hirukoiztu egin da, eta bertso saioena, laukoiztu. 90eko hamarkadan egon zen boom bat eta esan dezakegu bigarren batean gaudela orain; seguraski, inoiz baino jarraitzaile gehiago ditu egun bertsolaritzak”. Baina zergatik?

Sozializazio guneak eta artikulazioa

Kultur sorkuntza kanal hegemonikoetan ez dabilenean ikusezina da, txikia. Bertsolaritzak, ordea, gizarte mugimendu forma hartzen du, eta mugimenduak proiektu soziokulturala du: talde bat batzen du eta espazioak sortzen ditu kultur adierazpide hori haz dadin. “Munduari begiratzeko modu bat eraikitzen du, aukera leihoak baliatu, bitartekoak eragin eta jendea mugiarazi”, azaldu du Zubirik. Garrantzitsuena **sozializazio guneak sortzeko duen gaitasuna** dela nabarmentzen du eta “horietan kultur kontsumoa bizipenekin nahastu eta ikaragarri aberasten dugu”.

Sozializazio gunez gainera, beste kontzeptu bat ere txertatu du ikerketak gure hiztegiaren: artikulazioa. Elkar ukitzen ez duten bi munduk elkar ukitzen dutenean gertatzen da hori eta, ondorioz, elkar elikatu eta aberasten direnean. Hurrengo artikulazio esanguratsuena ere aurreikusi du: “seguraski emakumeen posizioa bertsolaritzan; hor gertatzen denaren arabera izango da bertsolaritzaren etorkizun hurbil edo ertaineko osasuna”.

Beste hainbat ezaugarri ere xehatu ditu ikerketak. Publikoaren erdia edo gehiago emakumezkoa da, adinez oso anitza eta parametro politikoetan ezker moderatua nagusitzen den arren, bestelako joerak ere oso presente daudela dio Zubirik: “hainbat elkarrizketa egin ditugu eta batek zioen gero eta gehiago dagoela “fidatzekoa ez den publikoa”; eta jende gehiena da horrelakoa. Bertso saioetara joatea gustuko duen horrek, bideo jokoak, zinea eta beste gustatzen zaizkio. **Bere bizitza kulturala ez da bertsolaritzara soilik mugatzen”.**

Zalegoa eta testuingurua, azken finean, gizartea eraldatzen den neurrian, garaian garaikora egokitzea da bidea, biziraun bakarrik ez eta osasuntsu ere bizi nahi bada. “Gizarte mugimenduak jaio egiten dira, hazi, heldu, zahartu eta hil. Gizarte mugimenduek aukera izango dute bigarren bizitza bat lortzeko, baina horretarako aldatu egin behar dute”, azaldu du Zubirik.

Informazio gehiago www.mintzola.eus atarian. Laster argitaratuko dira azterketako datuak ere.



Bertsolari kopurua hirukoiztu egin da; eta bertso saioena, laukoiztu. / XDZ



Puntua jarrita

AITOR LARRETA ARRUTI

Saiatuko naiz, Alazne, zure galderari ahal bezain hobekien erantzuten. Baina Fernando Amezketarrak esan omen zuen bezala, ez dago galdera zailik, erantzunak dira zailak!

Bertsolaritza nola bizi dudan erraz laburtu dezaket bi ikuspegi nagusitan. Bertsozale naizen aldetik, ezagutza tresna eder bat dela esango nuke. Batez ere, euskara hobe ezagutzeko bere aldaera ezberdinetan, garai eta jatorriaren arabera. Baita gure herriko ohiturak, bizimoldeak eta hauen aldakuntzak ezagutzeko ere. Edo, besterik gabe, edozein jaialditan ordu eta erdiz gozatzeko balio dit.

Bertsolariaren ikuspegitik berriz, jolas bat bezala bizi dut gaur egun, hitzak neurtzen egiten dena, eta hitzez neurtua izatea baino nahiago dudana.

Hala ere, bertsolaritza ezer gutxi da bere horretan eta hau ere testuinguruak baldintzatzen du. Norbereak eta orokorrak. Gaur egun, diziplina ezberdinekin elkarlanean ikus dezakegu, esperimentaziora irekia. Honek, dudarik gabe, bertsolaritza biziberritu eta freskatzen du, baina, eraldatu ere bai.

Bat-batekotasunaz asko hitz egiten den garai honetan, espontaneotasuna galtzen ari dela iruditzen zait. Alegia, nekez ikusiko ditugula bertsolariak aitzakiarik gabe, edo hobe esanda, edozein aitzakiarekin kantari. Hitzordu, gai jartzaile eta horrelakoen beharrik gabe, ikusi edo bizi izandako horri bertsoa botatzen.

Bertsolaritza ez da bat eta bakarra, eta inoiz baino bertsolari gehiago izateak ere molde ezberdinak sortzen ditu

Niretzako zailena, bertsolaritzak zer ematen didan ta nik hari zer eman nahi diodan jakitea izan da. Horregatik pasa dut ziurrenik hamarkada bat baino gehiago bertsoaz aldunduta. Jende berria ezagutu eta batez ere inongo presiorik ez sentitzeak gogoia piztu dit berriro. Bertsolaritzarekin bakeak eginda gustura nabil.

Gurea bertsozale/lari etxea da, aitona, osaba, lehengusuak... eta hurrengo galdera egiteko ez naiz gehiegi urrunduko. Hain zuzen ere, Pello Basurto lehengusuari pasako diot txanda.

Pello: bertsolari izateko, bertsozale izan behar da?

Koplak

What is bertsolaritza? proiektuko bertso bilduma ere sarean

Bertsolaritza munduan ezagutarazteko helburuz sortutako *What is bertsolaritza?* ikus-entzunezkoa abenduan jarri zen eskura sarean. 20 minutuko ekoizpenarekin batera, gai unibertsalei buruzko bertso bildumak osatzen du proiektua eta horiek ere ikusgai daude dagoeneko, hiru erdal hizkuntzako azpiztituluekin. www.mintzola.eus atarian duzue informazioa.

Poto-Finixa



Belaunaldiartekotasuna

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Jaso BertsoZalea berripapera digitalki

Paperaren erabilera murriztuz eta edozein momentutan sakelekoan irakurri ahal izateko BertsoZalea berripapera posta elektronikoz jaso nahiko bazenu, idatzi komunikazioa@bertsozale.eus helbidera eskaria ginez.



14 SORTZAILE JOLASEAN

Igor Elortza-Joseba Sarrionandia
Uxue Alberdi-Danele Sarriugarte
Julio Soto-Gorka Urbizu
Nerea Ibarzabal- Eneko Sagardoy
Andoni Egaña-Ruper Ordorika
Onintza Enbeita- Maite Berriozabal
Manex Agirre- Ilaski Serrano

PUBLIZITATEA